

# 2019ko INDARTU PROGRAMAREN EBALUAZIO TXOSTENA



**Sandra Brizuelo**

**Eider Goiburu**



# 1. KAPITULUA

## EBALUAZIOAREN PROZEDURA

Ebaluazio kuantitatiboa eta kualitatiboa egin da. Ebaluazio kuantitatiboari dagokionez, prozesuaren ebaluazio bat eta emaitzen ebaluazio bat egin da parte hartzaile guztiekin. Eta ebaluazio kualitatiboa egiteko, berriz, World Kafearen teknika erabili dugu.

### 1.1 Ebaluazio kuantitatiboa

Indartu Programa ebaluatze aldera, bi ebaluazio mota aplikatu dira:

- **Prozesuaren ebaluazioak** programa bakoitzaren alderdi estruktural nagusiak aztertzeko aukera ematen digu. Helburua programek guk nahi dugun eran eta mailan funtzionatzen dutela ziurtatzea da, programa horiei eraginak edo ondorioak egotzi aurretik. Ebaluazio honek espero diren helburuak zergatik lortu diren edo ez diren lortu ulertzeko balio digu, baita esku hartzeak berak hobetzeko ere. Zenbait adituren aburuz, ebaluazio mota hori emaitzen ebaluazioaren aurre baldintza bat da, ezin baita zerbait ebaluatzen hasi zer alderdi eta nola aplikatu diren jakin gabe.
- **Emaitzen ebaluazioa** programa baten eraginkortasuna edo efizientzia ebaluatzearen sinonimoa da. Kasu honetan, eraginkortasuna ebaluatzea planteatzen da, programak aplikatu ondoren ezarritako helburuak bete ote diren jakiteko. Ebaluazio hori giltzarria da; izan ere, programek eragin zehatz batzuk izatearen gaineko ebidentzia enpirikorik erakutsi ezean, gainerako analisi mota guztiak hutsalak dira.

#### Prozesuaren ebaluazioa

Galdetegi bat erabili da *programen alderdi estrukturaleri buruzko ikasleen iritzia* jasotzeko, besteak beste: ikastaroaren balorazio orokorra eta baliagarritasuna, erabilitako denbora, aplikatutako metodologia, parte hartzaileen jarrera, eta profesionalen jarduera. Erantzun gehienak 6 puntuko Likert erako eskalen bidez lortu dira (ikus 3.1 taula).

**1.1 taula: Prozesuaren ebaluazio eskalaren deskribapena**

GAIAK	ALDAGAIAK	ERANTZUN ESKALAK
<b>Soziodemografikoak</b>	Sexua Adina Gradua Maila Hizkuntza	Item irekia Item irekia Item irekia Item irekia 1 Euskara 2 Gaztelania
<b>Ezaugarri orokorrak</b>	Balorazio orokorra Gogobetetzea Baliagarritasuna Iraupena	1 Totalmente Negativo a 6 Totalmente Positivo 1 Totalmente Insatisfecho a 6 Totalmente Satisf. 1 Nada útil a 6 Totalmente útil 1 Demasiado Corto a 7 Demasiado Largo
<b>Parte hartzaileen jarrera</b>	Parte hartzea Interesa	1 Nada Participativo a 6 Totalmente Participa. 1 Nada Interesado a 6 Totalmente Interesado
<b>Informazioa</b>	Ulermena	1 Totalmente Incompren. a 6 Totalmente Comprensible.
<b>Metodologia Baliabideak</b>	Egokitasuna Egokitasuna	1 Nada Adecuada a 6 Totalmente Adecuada 1 Nada Adecuada a 6 Totalmente Adecuada
<b>Aldaketak</b>	Informazioa Jarrerak Portaerak	1 Ninguno a 6 Sobresaliente 1 Ninguno a 6 Sobresaliente 1 Ninguno a 6 Sobresaliente
<b>Profesionalak</b>	Jarduera Arrazoiak	1 Deficiente a 6 Sobresaliente Item irekia: Emandako erantzuna arrazoitzea

Neska ikasleen taldeei eskala horiek banatu zitzaizkien programen azken saioan. Hamar minutu inguru behar izan zituzten betetzeko.

Eskuratutako emaitzak SPSS estatistika programaren Windowseko 24.0 bertsioaren bidez aztertu dira. Ebaluazio mota honetan, funtsean, *joera nagusiko* (batezbestekoa, maiztasunak, portzentajeak) eta *sakabanatzeko* (desbideratze tipikoa) *datu estatistiko deskriptiboak* aplikatu dira.

### 1.1.2.- Emaizten ebaluazioa

#### Diseinu metodologikoa

Halaber, profesionalek emandako programaren *emaitzen ebaluazio bat* egin da, ikasleen ezagutzei, jarrerei eta portaerei buruz. Ebaluazioa ordubeteko 2 saiotan egin da. Aurkezpen eta amaierako saioetan, hain zuzen, eta jarraian deskribatzen dugun moduan:


■ **1. aldia (Pre-test).**- Programa aplikatu baino lehenago, eskala batzuk banatu zitzaizkien talde guztiei, non esku hartze bakoitzean landu beharreko alderdiei buruzko informazioa jasotzen baitzen (ikus neurketa tresnen atala).

■ **2. aldia (Post-test).**- Talde horiek aipatutako eskala berberak bete zituzten esku hartzeen amaieran.

Beraz, *pre-post diseinu aurre experimental hau* aplikatu da kontrol talderik gabe (ikus taula)

1. Pre-testaren banaketa.
2. Programen aplikazioa.
3. Post-testaren banaketa.

#### 1.2.- Kontrol talderik gabeko pre-post taldeen diseinu aurre experimentalak emaitzak ebaluatzeko



O = Behaketa edo neurketa tresnen aplikazio denbora.

0 = Pre-test eta 1 = Post-test; X = Programa.

Diseinu mota horretan, talde batek pre-testean emandako batezbestekoa alderatzen da talde berak post-testean emandako batezbestekoarekin. Beraz, aplikatutako programaren eraginkortasuna egiaztatzeko, talde guztietako ikasleei esku hartzeen aurretik eta ondotik egindako ebaluazioetan lortutako emaitzak alderatu dira. Hau da,  $O^0$  eta  $O^1$  alderatu dira.

Diseinu aurre experimentalek ematen dituzten printzipioetatik abiatuta diseinu konplexuagoak garatzen dira, hala nola kuasiesperimentalak. Diseinu experimental batean ez bezala, taldeak ez dira ausaz sortzen, talde naturalak dira; gainera, ez dugu

kontrol edo alderaketa talde bat, eta, beraz, aldagai arrotz posibleak ez daude kontrolpean. Diseinu horien bidez, nekez lor daitezke kausa-ondorio inferentziak, lortutako emaitzak baliozkotasunak izan ditzakeen mehatxuen kopuru handi baten ondorio izan daitezkeelako.

Diseinu mota horiek potentzia gutxi daukate, planteatzen dituen baliotasun arazo posibleen kopuru handia dela eta; horregatik, gutxitan erabiltzen da inferentzia kausalak sortzeko. Oro har, diseinu mota hau egokia izan daiteke soilik neurtutako aldagaiak esku hartzearen eragina bakarrik jasan dezakeen kasuetan, eta aldi berean bi neurketen artean denbora gutxi igaro denean. Gure kasuan, bigarren baldintza betetzen da. Edonola ere, aurkitutako desberdintasunek hain agerikoak izan beharko lukete, non egon daitezkeen mehatxuek, beren horretan, ezingo bailukete azaldu esku hartze programa aplikatu ondoren izandako aldaketa.

### **Ebaluazio tresna**

Ebaluatzen ditugun mendeko aldagaien artean sartu ditugu; alde batetik, dauden prozesu psikosozialaren etapari dagozkion alderdiak, eta, bestetik, genero arloan gehien erabilitako jarreraren eta sinesmenen ereduaren arabera arrisku eta prebentzio portaeretakoa aldagai prediktiboak, zeinak programak egitean landu baitira (ikus 1. kapitulua). Aldagai horien operagarritasunari dagokionez, datozen lerroetan erabilitako neurketa tresna deskribatzen dugu.

● *Estatus soziodemografikoa*. Atal honetan, honelako datuak jaso dira galdera irekien bidez: sexua, adina, ikasketa gradua eta maila.

● *Ambivalent Sexism Inventory (ASI)* (Glick eta Fiske, 1996). Sexismo motak neurtzeko erabiliko dira bai euskarazko bertsioa (Goiburu, 2015) bai gaztelaniazkoa (Expósito, Moya eta Glick, 1998). Hogeita bi itemez osatuta dago, 1-5eko erantzun tartearekin (1= erabat desadostasuna eta 5= erabateko adostasuna). Enuntziatuekin ados egoteak sexismo anibivalente handiagoa izatea adierazten du.

● *Double Standard Scale* (Caron, Davis, Halteman eta Stickle, 1998);

Euskaraz balidatuta dago Ubillos, Goiburu eta Pizarroren lanean (2016), eta gaztelaniaz, berriz, Sierra, Rojas, Ortega eta Martín-Ortiz lanean (2007). Bost puntuko (1= erabateko desadostasuna eta 5 = erabateko adostasuna) Likert motako

10 itemez osatuta dago; lehen itemak, esate baterako, honela dio: *“neskak bere bikoteak baino sexu esperientzia gutxiago edukitzea espero da”*. Puntuazio handiagoek sexu estandar tradizional bikoitzaren onarpen maila handiagoa adierazten dute. Euskarazko bertsioan, galdetegia 7 itemek osatzen dute.

● *Genderism and Transphobia Scale*: Eskala honetako 12 itemeko bertsio egokitua erabiliko da, Carrera-Fernández, Lameiras-Fernández, Rodríguez-Castro eta Vallejo Medina (2014). Parte hartzaileek aukeran emandako 7 erantzunen artean hautatu beharko dute.

(1 = erabateko adostasuna eta 7 = erabateko desadostasuna). Lehen itemak, esate baterako, honela dio: *“maritxu gisa jokatzeko duten mutirik jo izan ditut”*.

● *Agentzia Pertsonala eta Jabekuntza neurtzeko eskala* (Pick, Sirkin, Ortega, Osorio, Martínez, Xocolotzin, Givaudan, 2007). Lau puntuko (1= inoiz ez eta 4 = beti) Likert erako 42 itemez osatuta dago; 2. itemak, esate baterako, honela dio: *“ez naiz segurua sentitzen nire erabakiekin”*.

#### **Analisi estatistikoak**

Ebaluazio prozesuan eskuratutako emaitzak SPSS estatistika programaren Windowseko 24.0 bertsioaren bidez aztertu dira.

*Profesionalek emandako programaren eragina* ebaluatzeko T-Test analisia erabili da nagusiki.

*T-Test analisia* programa egin aurretik eta ondoren taldetik lortutako batezbestekoen arteko alderaketa bat da. Horrela, analisi horiek Indartu Programaren epe laburreko ebaluazio bat egiteko aukera eman digute. Hau da, esku hartzean parte hartu duten gazteen artean pre-testetik post-testera aldaketa esanguratsuak eman ote diren aztertu da.

Estatistika mailan, T-Test analisisien bidez baieztatu daiteke programa eraginkorra izan dela batezbestekoen edo portzentajeen aldea esanguratsua izan denean. Horrek esan nahi du taldearen batezbestekoak edo kategoria guztietan erantzun duten pertsonen portzentajeak hobeak direla post-testean (esate baterako, sexismoarekiko jarrera negatiboagoa), pre-testarekin alderatuta.

## 1.2 Ebaluazio kualitatiboa

Ebaluazio kuantitatiborako galdetegi aplikatu ondoren, “World Kafearen” teknika erabili zen programaren ebaluazio kualitatiboa egiteko. Horrela, proiektua osatzen duten funtsezko alderdiak baloratzeko aukera izan genuen.

Ebaluazio kualitatiboa hasteko, gertaeren behaketa xehea eta hurbila egiten da; alderdi espezifikoa bilatzen da, eta garrantzi berezia ematen zaio norbanakoak parte hartzaileen jardueretan izandako portaerari. Kualitatiboa aztertzearen helburua zera da: ekintzak egoeraren baitan esanguratsuak diren testuinguruak bilatzea; ez dira esanahiak inposatu nahi, eta egitura bilatzen da, eta, haren barruan interes guneak aurkitu eta azaldu nahi dira haien esanahiak itzultzeko, berreraikitze eta sintetizatzeko. Gertatutakoa deskribatzeaz harago, ikuspegi kualitatibotik esanahi intersubjektibo kokatuak eta eraikiak aztertzen dira; gertatutakoa bere esparru naturalean aztertzen da, distortsiorik gabe.

Hasieran aipatu den bezala, Indartu Programaren ebaluazio kualitatiboa World Kafe teknikaren bidez egin da. Informazio bilketa osatzeko, galdetegi kuantitatiboaren barruan bi galdera ireki sartu dira; bat, Indartu Programaren arduradunei buruzkoa, eta, bestea, programaren alderdi positiboetara eta negatiboetara buruzkoa.

Eskuratutako erantzunak gai esanguratsuenen edo interes guneen inguruan bildu dira, eta horrek aukera emango digu esku hartzeak (alegia, programa eta ikastaroa) agente parte hartzaile eta informatzaileentzat (kasu honetan, ikastaroko emakumezko ikasleak) izan duen esanahia azaltzeko.

World Kafearen teknikak elkarrizketa esanguratsuak egitea ahalbidetzen du, eta horien bidez, parte hartzaileen taldeak proposatzen zaizkion galdera mamitsuei buruzko gogoetak egiten ditu; entzumen aktiboa ematen da, insight-ak lorzeko; pertsona bakoitzaren ekarpena jasotzen da; eta, ideiak sortzen dira. Teknika horren exekuzioari dagokionez, kafetegi moduko espazio informal bat antzezten da, eta talde txikitik galderak planteatzen dira (taldeak 10 minutuero eta galdera berri bakoitzaren aurrean aldatzen dira). Ideiak, emandako informazioa, koloretan jasotzen da kartoi meheetan eta postitetan.



Bitan egin da: programaren 1. eta 10. saioetan; hau da, prestakuntzaren 8 saioetan parte hartu aurretik eta ondoren.

## 2. KAPITULUA

### EBALUAZIOAREN EMAITZAK

Kapitulu honetan ebaluazio kuantitatiboaren nahiz kualitatiboaren emaitzak azalduko ditugu.

#### 2.1 Ebaluazio kuantitatiboa

Aurreko kapitulan deskribatu den moduan, bi ebaluazio kuantitatibo mota egin dira: prozesuarena eta emaitzena. Lehendabizi, prozesuaren ebaluazioan lortutako emaitzak azalduko ditugu, eta gero emaitzen ebaluazioarenak.

##### 2.1.1.- Prozesuaren ebaluazioa

Atal honetan, Indartu Programaren prozesuaren hainbat alderdiri buruz ikasleei egindako ebaluazioan eskuratutako emaitzak deskribatuko ditugu. Kapitulu honetan, programak aplikatu diren taldeetan lortutako datuak deskribatzen dira.

Jarraian erakusten diren emaitzak 4 alderditan banatu ditugu:

1. Lehenengoari **programen alderdi orokorrak** deitu zaio, eta bertan, esku hartzeen eta horietan igarotako denboraren gaineko balorazio globaletik lortutako datuak bildu dira, baita egindako saioekiko gogobetetze maila eta saioei emandako baliagarritasuna ere.
2. Bigarren alderdiak programa egin bitartean **taldeek izandako jarrerari** buruzko informazioa jasotzen du; hau da, esku hartze horiek sortutako interes eta pare hartze maila.
3. Hirugarren alderdiak, berriz, **programaren alderdi estrukturaleri** buruzko datuak jasotzen ditu. Kasu horretan, honako hauek baloratu dira: saioetan banatzen joan den informazioaren ulermen maila, edukiak lantzeko erabilitako metodologiaren


egokitasuna, unibertsitateko baliabideen (ikasgela, etab.) egokitasuna, eta profesionalen jarduera.

4. Laugarren eta azken alderdiak *programak egindako ekarpenen* gainean ikasleek duten pertzepzioa aztertzen du informazioari, jarrerari eta portaera baliabideei dagokienez.

Datuak erakutsi baino lehen, emaitzak interpretatzeko unean kontuan hartu behar da 0,50eko edo horren azpiko batezbestekoak jarraian den azpiko puntuazioaren arabera interpretatzen direla eta 0,51ko edo horren gaineko batezbestekoak, berriz, jarraian den goragoko puntuazioaren arabera. Hala, baliagarritasun mailan batezbestekoa 5,48 bada programa “oso baliagarria” izan dela interpretatuko da, eta batezbestekoa 5,56 bada, berriz, “guztiz baliagarria” izan dela.

Ebaluazioa **23 ikaslek** egin dute, ikasle horiek joan baitziren aurkezpen eta itxiera saiora, nahiz eta Indartu Programan, orotara, 25 ikaslek parte hartu zuten.

**2.1.- Grafikoa. Asistentziaren bilakaera, taldearen arabera.**



Parte hartzaileak 3 taldetan banatu ziren, egoki iritzi baitzitzaion esperientzia pilotua talde txikiagoetan egiteari. Hurrengo grafikoan, neska ikasleen asistentziaren bilakaera azaltzen da Indartu Programaren saioetan. A taldean, 7 ikaslek parte hartu zuten, eta saioak gaztelaniaz egin ziren. B taldean, X ikaslek parte hartu zuten, eta hor ere gaztelaniaz egin ziren saioak. C taldean, programa euskaraz eman zen, eta, hasiera batean 12 ikaslek izena eman bazuten ere, azkenean 6k parte hartu zuten. Ez dakigu besteak zergatik ez ziren joan saio bakar batera.

Ikasle horien batez besteko adina 19,43 urtekoa da (sd=1,16) eta adin tartea, 18-23 urte artekoa (ikus 2.1 taula).

**2.1.- Taula. Parte hartzaileen banaketa, adinaren arabera**

Adina	Kop.	%
18	2	8,7
19	15	65,2
20	3	13
21	1	4,3
22	1	4,3
23	1	4,3
<b>Guztira</b>	23	100

Ikasleen % 26,1ek (Kop=6) programa euskaraz egin zuten. Gainerakoek (% 73,9, Kop=17), gaztelaniaz.

Horrez gain, programan 9 gradutako ikasleak izan dira, hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan. Saioetan Zuzenbide graduak izan du ordezkari gehien (% 34,8, Kop=8).


**2.3.- Taula. Parte hartzaileen banaketa, graduaren arabera**

Gradua	Kop.	%
<b>Zuzenbidea</b>	8	34,8
<b>Zientzia Politikoak</b>	2	8,7
<b>Biologia</b>	1	4,3
<b>Kazetaritza</b>	1	4,3
<b>Lan Harremanak eta Giza Baliabideak</b>	4	17,4
<b>Lehen Hezkuntza</b>	2	8,7
<b>Gizarte Hezkuntza</b>	3	13
<b>Soziologia</b>	2	8,7
<b>Guztira</b>	23	100

Programa emateko unean parte hartzaile gehienak graduaren bigarren maila egiten ari baziren ere (% 91,3, Kop=21), lehen mailako ikasle bat ere bazegoen (% 4,3), eta hirugarren mailako beste bat (% 4,3).

2.2 grafikoan ikus daitekeenez, *alderdi orokorre* dagokienez, ikasleek era “guztiz positiboan” baloratu dute Indartu Programa (batezbestekoa=5,95; sd=0,22). Hain zuzen ere, gehiengoak (% 82,6) kalifikazio “guztiz positiboa” eman dio, eta % 4,3k, berriz, kalifikazio “oso positiboa”. Hiru pertsonak (% 13) ez zuten iritzirik eman ez galdera honetan, ez hurrengo hiruetan.

### 2.2.- Grafikoa: Indartu Programaren I. prozesuaren ebaluazioa



Gainera, ikasleek adierazi dute “erabat gogobeteta” sentitu direla programa egitearekin (batezbestekoa=5,55; sd=0,51). Horren harira, % 47,8 “erabat gogobeteta” agertu da, eta % 39,1ek “oso gogobeteta” sentitu dela adierazi du.

Neska gazteei ere “erabat baliagarria” iruditu zaie programa egitea (batezbestekoa=5,80; sd=0,41). Hain zuzen ere, ikasleen % 69,6k adierazi dute programa “erabat baliagarria” iruditu zaiela, eta % 17,4k, berriz, “oso baliagarritzat” jo dute.


Azkenik, programaren iraupenari dagokionez, gazteek “egoki” gisa baloratu dute (batezbestekoa=3,95; sd=0,68). Datu horrekiko koherentziaz, % 21,7k programa “laburra” iruditu zaiela adierazi du, % 47,8ri “egokia” iruditu zaio, eta, azkenik, % 17,4k “luzea” izan dela adierazi du.

Programa egin bitartean *taldeen jarrera* izan da ebaluatu dugun beste alderdietako bat (ikus 2.3 grafikoa). Parte hartzaileek irizten diote saioetan “oso parte hartzaileak” izan direla (batezbestekoa=5,30; sd=0,86) eta “erabat interesatuta” egon direla (batezbestekoa=5,85; sd=0,36).

Hain zuzen ere, ikasleen % 43,5ek programa egin bitartean jarrera “guztiz parte hartzailea” izan dutela irizten diote; % 30,4k “oso parte hartzaileak” izan direla esan dute, eta % 8,7k, “parte hartzaileak” izen direla. Aitzitik, % 4,3k “apur bat parte hartzaileak” izan direla adierazi dute. Ikasleen % 13k (Kop=3) ez dute baloratu, ez haien parte hartze maila, ez interes maila programan.

Ikasleek erakutsitako interesari dagokionez, % 73,9k adierazi du “erabat interesatuta” sentitu dela eta % 13, berriz, “oso interesatuta” agertu da.

### 2.3. Grafikoa: Indartu Programaren II. prozesuaren ebaluazioa




Hirugarren lekuan, programaren *alderdi estruktural* hauek ebaluatu dira: informazioaren ulergarritasuna, metodologiaren egokitasuna, unibertsitateko baliabideen egokitasuna, eta profesionalen jarduera (ikus 2.4 grafikoa). Ikasleek adierazi dute emandako informazioa “erabat ulergarria” izan dela (batezbestekoa=5,55; sd=0,61), erabilitako metodologia “oso egokia” izan dela (batezbestekoa=5,40; sd=0,68), eta unibertsitateak emandako baliabideak “oso egokiak” izan direla (batezbestekoa=5,05; sd=0,91).

Informazioari dagokionez, % 52,2k “guztiz ulergarri” gisa ebaluatu du, % 30,4ri “oso ulergarria” iruditu zaio, eta % 4,3ri, “ulergarria”. Ikasleen % 13k (Kop=3) ez diote galdera honi erantzun, ezta hurrengoari ere.

Ikasleen % 43,5ek metodologia “erabat egokitzat” kontsideratu dute; % 34,8k, “oso egokitzat”, eta, azkenik, % 8,7k, “egokitzat”.

Unibertsitateak emandako baliabideei dagokienez, % 34,8k “guztiz egokiak” izan direla adierazi du; % 17,4ri “oso egokia iruditu zaizkio, eta % 30,4ri, “egokiak”. Ikasleen % 17,4k (Kop=4) ez diote erantzun galdera horri.

**2.4. Grafikoa: Indartu Programaren III. prozesuaren ebaluazioa**



Informazioa: ulergarritasuna / Metodologia: egokitasuna / Baliabideak: egokitasuna / Profesionalak: jarduera

Programa emateaz arduratu diren profesionalek “bikain” kalifikazioa jaso dute (batezbestekoa=5,90; sd=0,30). Horrela, ikasleen % 78,3k “bikain” baloratu dituzte, eta % 8,7k, berriz, “oso ongi”. Kasu honetan, hiru pertsonak ez diote galderari erantzun (% 13).


Azkenik, ikasleek informazioaren arloko programaren *ekarpenak* baloratu dituzte, bai eta jarreretan eta portaeretan izandako aldaketak ere. 2.5 grafikoan ikus daitekeenez, parte hartzaileek “oso ongi” bat jarri diote emandako informazioari (batezbestekoa=5,40; sd=0,59), eta “bikain” kalifikatu dituzte jarreretan eta portaeretan emandako aldaketak (batezbestekoa=5,85; sd=0,36; batezbestekoa=5,75; sd=0,44). Ikasleen % 13k ez diete erantzun galdera hauei (Kop=3).

Gauzak horrela, programak emandako informazioari erreparatuta, % 39,1ek “bikain” baloratu du; % 43,5ek, “oso ongi”; eta, % 4,3k, “ongi”.

Programak jarreretan eragin dituen aldaketei erreparatuta, neska gazteen % 73,9k “bikain” batez kalifikatu dituzte aldaketak, eta % 13k, “oso ongi” batez.

Programak portaeretan izandako eraginari erreparatuta, % 65,5ek “bikain” batez ebaluatu du eragina, eta % 21,7k, berriz, “oso ongi” batez.

## 2.5. Grafikoa: Indartu Programaren IV. prozesuaren ebaluazioa



### 2.1.2.- Emaizten ebaluazioa

Lehen azaldutakoa kontuan hartuta, atal honetako helburua da profesionalek UPV/EHUko ikasleei emandako Indartu Programaren eraginkortasuna ebaluatzea. Ebaluazio honen bidez, programan finkatutako helburuak lortu ote diren ikusi ahal izan dugu. Hau da, programaren emaitzak ebaluatu dira, esku hartzea aplikatu zaien gazteen ezagutzetan eta jarreretan.


*Sexismo antibalenteari* dagokionez, emaitzen ebaluazioak adierazten du taldeak pre-testean 1,48ko (sd=0,35) puntuazioa izatetik post-testean 1,20ko batezbestekoa izatera igaro direla (sd=0,20) (2.6 grafikoa). Beraz, ikus daitekeenez, taldeak hasierakoa baino puntuazio nabarmen txikiagoa eskuratu du, eta horrek adierazten du esku hartzearen ondoren hobera egin duela sexismo antibalentearekiko jarrerak, sexismo antibalentearen maila txikiagoa baita programa egin ondoren.

*Sexismo Antibalentearen Teoriak* emakumeen bazterkeria azaltzeko haienganako afektu positiboak eta negatiboak biltzen ditu (Glick eta Fiske, 1996,



2000, 2001). Horretarako, bi sexismo mota aurkezten dira: sexismo erasokorra eta sexismo onbera. Egileak sexismo erasokorraz mintzo direnean, emakumeekiko aurreiritzi batez ari dira, zeina jarrera erasokor eta abertsio gisa ulertzen baita (Allport, 1954); aldiz, sexismo onberak ideologia tradizional bat du oinarrian, eta horren arabera emakumeak emazte, ama edo objektu erromantiko gisa idealizatzen dira (Glick eta Fiske, 1997).

**2.6. Grafikoa: Programaren emaitzak**  
**Sexismo anibalentea: erasokorra eta onbera (1-5 tartea)**



**Sexismo anibalentea:  $t_{(17)}=4,451$ ,  $p<.0001$**   
**Sexismo onbera:  $t_{(17)}=5,056$ ,  $p<.0001$**   
**Sexismo erasokorra:  $t_{(18)}=2,397$ ,  $p<.05$**

2.6. grafikoan ikus daitekeenez, sexismo onberarekiko batez besteko puntuazioa 1,63koa (sd=0,48) izan zen pre-testean, eta 1,23koa (sd=0,25), post-testean. Hortaz, ikusten denez, ikasleen sexismo onberaren mailak behera egiten du, oro har, esku hartzearen ondoren. Alegia, Indarturen ikasleek orain gutxiago ikusten dituzte emakumeak emazte, ama eta objektu erromantikoen rola barruan.

*Sexismo erasokorraren* azpieskalari dagokionez, 2.7 grafikoan ikusten dugu pre-testean jasotako 1,33ko (sd=0,36) batez besteko puntuazioa 1,18ra (sd=0,27) jaisten dela post-testean. Horrek esan nahi du esku hartzearen ondoren nabarmen jaitsi dela sexismo erasokorraren maila ikasleen artean; beraz, emakumeenganako jarrera erasokorra eta abertsiboa apaldu egin da programa egin ondoren.


Glick eta Fiske (1996, 1999, 2000) egileek proposatzen dute sexismo erasokorrak eta onberak 3 osagai komun hauek dituztela: paternalismoa, genero bereizketa eta heterosexualitatea.

Glick-ek eta Fiske-k (1996) honela definitzen dute **paternalismoa**: “aitak seme-alabekin duen portaera da; alde batetik, afektua eta babesa ematen die, eta, bestetik, aita seme-alaben gainean agintzen du”.

**Genero bereizketari** dagokionez (Glick eta Fiske, 1996), bereizketa horrek inplikatzeko duen gizona direla gobernatzeko eta boterea edukitzeko gai diren bakarrak; emakumeak, aldiz, horretarako gai ez direnez, etxeko eta familiako eginkizunen esparruan geratzen dira.

Azken osagaia **heterosexualitatea** da, eta, Glick-ek eta Fiske-k (1996) azaltzen dutenez, emakumeenganako sexu desioak haienganako hurbilketa bat eragin dezake, intimitate heterosexualari lotuta dagoena. Ohera, hori mehatxu bat izan daiteke emakumeentzat; hortaz, gizonen desio sexuala asetzeko edo ez asetzeko erabakiaren bidez, emakumeek boterea eskuratzen dute.

### 2.7. Grafikoa: Programaren emaitzak Sexismo antibalentearen dimentsioak: paternalismo babeslea, genero osagarritasuna, intimitate heterosexuala



**Paternalismoa:**  $t_{(18)}=3,618$ ,  $p<.01$   
**Osagarritasuna:**  $t_{(17)}=5,136$ ,  $p<.0001$   
**Intimitatea:**  $t_{(18)}=-2,123$ ,  $p<.05$


Aurreko grafikoan ikus dezakegunez, aldaketa esanguratsuak lortu dira **Paternalismo babeslearen** dimentsioan; izan ere, pre-testearen batez besteko puntuazioa 1,39koa (sd= 0,45) izan zen, eta post-testekoa, 1,18koa (sd= 0,36).

Bigarren dimentsioari; hau da, **Genero bereizketari** dagokionez, gizonak agintari eta emakumeak etxekoandre izatearen ideia nabarmen gutxitzea lortu dugu. Hain zuzen ere, pre-testaren batez besteko puntuazioa 2,35 (sd= 0,88) izan zen, eta post-testean 1,51ra (sd=0,66) jaitsi zen.

Hirugarren dimentsioan; hots, **Intimitate heterosexualean** ez da aldaketa esanguratsurik eman; hau da, programaren ondoren emakumeek gizonen sexu desioaren gainean duten boterearen ideia ez da murriztu; izan ere, pre-testaren puntuazioa 1,06 (sd= 0,20) izan zen, eta post-testean 1,36ra (sd: 0,63) igo zen.

**Sexu moral bikoitzari** dagokionez, datuek erakusten digute programaren aplikazioak ez duela eragin positiborik izan. Sexu estandar bikoitzari buruz hitz egitean, emakumeek eta gizonek barneratzen eta autoebaluatzeko darabilten generoaren arabera sexu arau desberdinak daudela adierazi nahi dugu (Crawford eta Popp, 2003). Grafikoan ikus daitekeenez, pre-testean ikasleek (sd=0,35) 1,96ko batez bestekoa izan dute, eta post-testean, 2,10ekoa (sd=0,55). Horrek esan nahi du programaren ondoren ez dela murriztu sexu estandar bikoitzaren atxikipena.

### 2.8. Grafikoa: Programaren emaitzak Sexu estandar bikoitza (1-5 tartea)




**Transfobia eta genero transgresioaren** gainean parte hartzaileek dituzten jarrerari buruz jasotako emaitzen arabera, estatistikoki hobera egin da Indartu Programaren ondoren.

Kasu honetan, datuak interpretatzeko, kontuan hartu behar dugu emaitza zenbat eta txikiagoa izan orduan eta hobea dela transfobia eta genero transgresioarekiko jarrera. Emaitza orokorrari dagokionez, pre-testaren batez besteko balioa 1,11koa da (sd=0,27), eta post-testarena, berriz, 1,11koa (0,20).

Eskala honen dimentsio bakoitzari erreparatuta, hurrengo grafikoan ikus dezakezu jarrera transfoboak nabarmen egiten duela behera pre-testetik post-testera, lehenengoaren batezbestekoa 1,93 (sd=0,29) baita eta bigarrengoarena, 1,03 (sd=0,11). Bestalde, **genero transgresioaren** dimentsioan ez dira aldaketa estatistiko esanguratsuak eman. Hala, pre-testaren batezbestekoa 1,28koa (sd=0,50) izan da, eta post-testarena, 1,20koa (sd=0,40).

**2.9 grafikoa:**  
**Transfobia eta genero transgresioarekiko jarrera (1-7 tartea)**




Amaitzeko, **agentzia pertsonalari eta jabekuntzari** buruz lortutako emaitzen arabera, Indartu Programaren ondoren egoerak estatistikoki ez du hobera egin. Kasu horretan, datuak interpretatzeko kontuan hartu behar da emaitza zenbat eta handiagoa izan orduan eta handiagoa dela parte hartzaileen agentzia pertsonala eta jabekuntza. Indartu Programak, oro har, ez ditu aldaketak lortu maila horretan. Izan ere, pre-

testean batezbestekoa 2,56koa (sd=0,19) izan zen, eta post-testaren batezbestekoa, berriz, 2,55ekoa (sd=0,25).

Alde batetik, *agentzia pertsonalaren* kontzeptuak gaitasun pertsonalari egiten dio erreferentzia, eta nagusiki pertsonan jartzen du ikuspuntua, gizarte testuinguru batean jardun den eragile gisa. Hortaz, pertsonak bere ardurapeko aukerak, erabakiak eta ekintzak iragartzeko eta kontrolatzeko duen gaitasuna adierazten digu agentzia pertsonalak. Indartu Programak ez du aldaketarik lortu maila horretan, pre-testaren batezbestekoa 2,56koa (sd=0,19) izan baitzen eta post-testekoa, 2,51koa (0,25).

Bestalde, *jabekuntzaren* dimentsioari dagokionez, kontzeptu horrek aldaketa prozesu bat inplikatzeko du, non jabekuntzarik gabeko egoera batetik abiatuta agentzia bat lortzen baita, pertsonen testuinguruan eragingo duten aukeraketa baliotsuak eta esanguratsuak egiteko (Kabeer, 1999). Indartu Programaren testuinguruan, programaren ondoren jabekuntzak estatistikoki gora egin duela ikus dezakegu. Hala, pre-testaren batezbestekoa 2,55ekoa izan zen, eta post-testarena, berriz, 2,78koa (sd=0,65).

### 2.10. Grafikoa: Agentzia pertsonala eta jabekuntza (1-4 tartea)



**Guztira:**  $t_{(17)} = 0,060$ ,  $p = .953$   
**Agentzia pertsonala:**  $t_{(17)} = 1,015$ ,  $p = .325$  **Jabekuntza:**  
 $t_{(18)} = -,6115$ ,  $p < .05$

## 2.2 Ebaluazio kualitatiboa

Lehen saioan Word Kafe teknikaren bidez lortutako informazioa ebaluazio unearen arabera antolatu da; hau da: aurkezpen saioan eta itxiera saioan.

### 2.2.1.- Aurkezpen saioaren emaitzak

Ikastaroa eman aurreko informazioa 3 interes gune hauetan antolatu da: 1. Parte hartzaileek genero indarkeriekin duten harremana, 2. Parte hartzaileek programaren gainean dituzten itxaropenak, eta 3. Genero indarkerien gaiarekiko interesa.

Jarraian datozen lerroetan, aipatutako interes gune bakoitzaren nondik norakoak azaltzen dira.

#### 1. Parte hartzaileek genero indarkeriekin izandako harremana:

Adierazi zutenez, harreman hori hitzaldien, unibertsitateko lanen edo on-line ikastaroen bidez izan dute. Hau da, “genero indarkeriak” ikastaro hauetako gai edo eduki gisa.

Era berean, alderdi pertsonalari erreferentzia laburra egiten zitzaion, hala nola esperientziak, “nos puede pasar”, “relaciones”.

#### 2. Indartu Programari buruzko parte hartzaileen itxaropenak:

Itxaropenak arlo indibidualean:

- Dimentsio kognitiboa eta emozionala (“*aprender*”, “*ganar seguridad y consciencia*”, “*entender por qué sigue pasando*”, “*cambio desde una misma*”, “*saber detectar situaciones*”).

- Portaera dimentsioa (“*empezar un cambio*”), aldaketa pertsonalaren bidez gizarte alorrean eragiteko dimentsioa barne hartuta (“*más información para combatirlo*”, “*inculcar a las próximas generaciones*”

Taldearekiko itxaropenak (“*crear un vínculo, red*”)

#### 3. Genero indarkerien gaiarekiko interesa honela azaltzen dute:

Esparru publikoan genero indarkeriei buruz hitz egiten entzun dutelako: *“falta visibilidad aunque está en los medios”*. Gizarte matxista bateko kide eta haiek ere matxista izatearen kontzientzia dute, eta, kontzientzia horrek bultzatuta, beren buruari horren zergatiaz galdetzen diote.

Ezagutu behar dutelako indarkeriei aurre egiteko: *“esperanza a medio medio plazo”*, *“más información para combatirlo”*, *“queremos cambios”*, *“nos afecta a todas”*.

Ekarpen horietan, emakume parte hartzaileentzat kide diren eta lana partekatuko duten taldeak duen garrantzia hautematen hasten da (haien parekoak izan daitezke horren eraginpean egon daitezkeen emakumeak), baita talde horren autozaintza ere: *“forma de compartir experiencias”* eta *“más ayuda entre nosotras”*.

### 2.2.2.- Amaierako saioaren emaitzak

Bigarren saioan, ikastaroa eman ondoren, World Kafearen teknikaren bidez lortutako informazioa interes gune hauetan antolatu da:

#### 1. Indartu Programan parte hartu izanak haien bizitzan izango duen eragina:

Arlo pertsonalean, emozioaren bitartez emandako aldaketa kognitiboak eta jarrera aldaketak aipatzen dira:

- *“Reflexión”, “Identificar violencias”, “mikromatxismoak zuzendu”*,  
*“Maitasun erromantikoa”, “normalizazioa”* (LGTBIri erreferentzia), *“Consciencia”*,  
*“matxismoaren konzientzia gehiago”, “ser más crítica”*.

- *“Ayudarnos a nosotras mismas”, “Empoderarse”, “valorarnos más”, “abrir los ojos”, “prevención ante futuras situaciones”, “valorar la amistad por encima del amor”, “empatía”, “soy más crítica”, “analizar mi entorno y los comportamientos”*.

#### Taldean:

- *“Gurearteko elkarlana eta ulermena (lantzea)”, “aprender a valorar las actitudes o comportamientos de otras personas”*.

### Gizartean:

- Gizartean kontzientzia hartzeari dagokionez, “*Visibilización*” “*mayor compromiso*”, “*ser más crítica*”, “*nosotras al contárselo a otras expandimos el efecto del programa*”, “*empatía*”, “*sororidad*”, “*ayudar a nuestras amigas*”.

## **2. Indartu Programan hobetu beharreko alderdiei dagokienez:**

### Antolakuntzari eta egiturari dagokienez:

- Ordu-tegiak: Alderdi negatibo gisa ordu-tegiak aipatzen dira askotan, baina ez da zehazten alternatiba argi bat. Pertsona batzuentzat hiru ordu asko dira; beste batzuen iritziz, 15:00-18:00 ordu-tegia goizegi da, eta beste batzuentzat, berriz, berandu.
- Iraupena: oro har, esplizituki landutako gaietan sakontzen jarraitzeko eskaera bat dago, baita atera diren beste gai batzuk gehiago lantzeko eskaera ere. Horretarako ordu gehiago beharko lirateke.
- Garaia: adierazi dutenez, otsail-apirila aldia egokia da, azterketen garaitik kanpo dagoelako, eta hura luzatzea ez litzateke bateragarria izango amaierako azterketekin. Edonola ere, batzuen ustez, urri-abendua bigarren aukera bat izan daiteke, baina zalantzak dituzte.
- Gelak: beti gela berean ez egoteak sortutako deserosotasuna eta argi naturalaren falta.
- Komunikazio plana: ikastaroan izena emateko informazioa eta komunikazioa hobetzea.

### Programazioari dagokionez:

“*Dejar lo más light para el final para assimilar las cosas*”. Gehiago dirudi jarraipen edo espazio eskaera bat taldean hausnartzeko (ez baitakigu zer den *lo mas light*), eta badirudi eskaera esplizitu hauei lotuta dagoela: “*saber cómo seguir con esto*” eta “*2. Zati bat programarena*”



Edukietan hobetu beharreko alderdiei dagokienez:

Informazioa eman da zabaltzeko eta sakontzeko proposamenak eginez:

- *Sexualitateari eta maitasun erromantikoari* buruzko edukietan.
- Dinamika batzuetan bereziki gustagarria izandako “sexu biografia” hainbat aldiz aipatzen da, eta espezifikatzen da gaiak taldea irekitzeko eta konfiantza sortzeko ahalmena duela.

Aipatzen da edukiak trinkoegiak izan daitezkeela; horrek agian zerikusia du inpaktu emozionalarekin, alegia, edukien izaerarekin kantitatearekin baino gehiago: “*Dejar lo más light para el final para asimilar las cosas*”. Gehiago dirudi jarraipen edo espazio eskaera bat taldean hausnartzeko (ez baitakigu zer den *lo mas light*), eta badirudi eskaera esplizitu hauei lotuta dagoela: “*saber cómo seguir con esto*” eta “*2. Zati bat programarena*”

**3. Indartu Programaren alderdi positiboenei dagokienez:**

Taldean sortutako harremana: “*confianza*”, “*dinámico*”, “*respeto*”, “*sororidad*”, “*talde giroa*”, “*conocer a gente*”, “*ambiente cálido, seguro y confiable*”.

Talde esperientzia esanguratsua, ahalmen suspergarria duena: “*ver que todas hemos pasado por lo mismo en algún momento*”,

Ikaskuntza teorikoak:

. Kotsideratzen dute haien gaitasuna areagotu dela *portaera matxistak hautemateko, gizartearen estereotipoen kontzientzia hartzeko, ezagutza areagotzeko, eta terminologia eta kontzeptuak argitzeko* (agerian uzteko izendatu behar dira: dibertsitatea, binarismoa, identitatea...), “beste perspektibak ezagutzea”.

. “Biografia sexualaren” bidez landutako edukietan sakontzeko interesa aipatu da ere.

. Ikaskuntzen eragina bizitzan: “*etengabeko hausnarketa batean murgildu naiz*”, “*eguneroko bizitzan dauden gai garrantzitsuen inguruan hausnarketa*”, “*hablar del comportamiento de las parejas, lo que me ha ayudado mucho a toma de*

*decisiones en mi vida*". Emakumeak hitzez adierazitako aldaketa bat da, non intimitatean eta agenzia pertsonalean izandako aldaketa pertsonal bati egiten baitzaio erreferentzia.

. Kontzientzia hartzearen eragina bizitzan: "*Darme cuenta de situaciones que he vivido de experiencia machista*", "*Nire etorkizunerako oso baliogarria izango da ikasitakoa*".

Programa garatzearen arduradunen lana eta jarrera:

- Motibazioak sinergiak sortzen ditu, emozionalki eragina duelako, eta, era berean, beharrezko <sup>bitarteko</sup> bat da, transmisioa egon dadin: "*lo dan con muchas ganas, ponen empeño y se nota*". Transmititu dugun interesa eta jarrera: "*resolver nuestras dudas y tenido en cuenta nuestros intereses en todo momento*", "*capaces de enseñar y valorar lo que ocurre*".

- Dinamizazioa: "*saioak oso dinamikoak... gure artean harreman oso ona izatera lagundu duelako*", "*gertutasuna ta konfidantza*", "*ikaslagunen artean emondako giroa*", "*nos hace participar a todas*"

- Taldearen beharretara eta eskaeretara egokitzea: "*flexibilidad en el programa*", "*parar para resolver dudas*".

### 3. KAPITULUA

#### ONDORIO NAGUSIAK ETA JARDUN LERROAK

Azken atal honetan bilduko ditugu Indartu Programaren ebaluaziotik ateratako ondorio eta datu nagusiak.

##### 3.1.- Genero Indarkeriak Prebenitzeko Programa

Indartu Programa 3 taldetan aplikatu da. 23 ikasle guztira, 9 gradutako lehenengo hiru mailetan daudenak, gehienak 2. mailan bazeuden ere programa aplikatu zenean. Nesken batez besteko adina 19,43 zen (sd=1,16). Talde batean euskara erabili da eta beste bietan gaztelania.

Genero indarkeriak prebenitzeko saioetan, aztergai izan dira genero rolei lotutako ezagutzak, jarrerak, gizarte arauak eta portaerak, jarrera matxistak eta indarkeria matxista motak. 78 ordu erabili dira guztira ikasleekin eginiko saioetan. Gainera, martxan jarri da plataforma bat e-gelapin, aukera eman duena saioetan landutako edukiak osatu eta horietan sakontzeko, baita parte hartzaileei baliabideak eta irakurketak eskaintzeko ere, behin programa amaituta. Programa ezartzeko egutegiaren barnean, bi ordu erabili dira astean plataforma hori kudeatzeko. Zeregin horrek 20 ordu behar izan ditu guztira.

##### 3.2.- Indartu Programaren emaitzen ebaluazioa

Emaitzen ebaluazioak aukera ematen digu jakiteko aldaketarik izan den usteetan, jarreretan eta portaeretan programa aplikatu ondoren. Kontuan izanik emaitzen ebaluazioa, ondorio batzuk atera daitezke.

Indartu Programak lortu du txikitzea oro har Sexismo Anbibalente maila. Gainera, txikiagotu egin du ere nabarmen Sexismo Erasokorra, eta lortu da ere Sexismo Onbera apaltzea programa aplikatu ondoren. Bestetik, sexismo mota honen 3 dimentsioei erreparatuta, aldaketa positibo nabarmenak izan dira bai emakumeekiko jarrera paternalistan bai genero bereizketaren ideian, baina ez intimitate heterosexualean. Ondorioz, programaren ondoren,

handitu egiten da nesken jarrera kritikoa paternalismo menderatzailearekiko (sexismo erasokorraren eragilea) eta babeslearekiko (rol tradizionala indartzen duena), baita osagarritasunaren ideiarekiko ere (gizonek alor publikoan duten nagusitasunaren osagarritasuna). Bestetik, lortu da txikiagotzea oro har jarrera transfobikoak eta genero transgresioarekikoak. Halaber, lortu da espezifikoki txikitzea transfobiarekiko jarrera negatiboa. Azkenik, agentzia pertsonal maila handitzea lortu ez bada ere, jabekuntza maila handiagoa lortu da. Horrek esan nahi du handitu egin dela nesken pertzepzioa gaitasun horrek testuinguruan duen eraginari buruz. Beraz, gaituago ikusten dute beren burua beren testuinguruko jarrera matxistetan eragiteko.

*Laburbilduz, bigarren ikasturteko ikasleei aplikatu zaien Indartu Programa eraginkorra izan da jarrera eta uste matxistak aldatzeko eta haien jabekuntza maila handitzeko.*

### **3.3.- Indartu Programaren prozesuaren ebaluazioa**

Aurretik aipatu den moduan, prozesuaren ebaluazioaren bidez jakin dezakegu zer neurritaraino garatu diren programak modu egokian eta zer gauza hobetu behar diren edo mantendu daitezkeen.

Oro har, esan genezake Indartu Programan parte hartu duten ikasleek guztiz positiboki baloratu dutela; hau da, guztiz gogobeteta daudela. Hain zuzen, balorazio kualitatiboan adierazi dute jarraitu nahi dutela sakontzen jada esplizituki aztertu diren gaietan, eta sortu diren beste batzuetan (ordu gehiago beharko lukeena).

Neskek uste dute programan parte hartzea izan dela “totalmente útil para su vida”. Gainera, jarrera harkor eta parte hartzailea izan dute, aztertutako gaiek piztu duten interes handiaren erakusgarri. Alde horretatik, gehienek uste dute programak interesgarriak izan direla eta oso positiboki baloratu dute beren parte hartzea saioetan planteatu diren dinamiketan. Balorazio kualitatiboan, parte hartze hori azaltzen duten faktoreak agertzen dira, taldean sortutako harremanari loturikoak: “*confianza*”, “*dinámico*”, “*respeto*”, “*sororidad*”, “*talde giroa*”, “*conocer a gente*”, “*ambiente cálido, seguro y confiable*”, eta hitzez adierazten da talde esperientziaren indar erreparatzailea: “*ver que todas hemos pasado por lo mismo en algún momento*”. Aurreikuspenek agerian utzi zuten motibazio handi bat (borondatez parte hartzen da programan) eta interes horrek dimentsio kognitibo eta emozional bat zuen (“*aprender*”, “*ganar seguridad y consciencia*”, “*entender por qué sigue pasando*”, “*cambio desde una*

*misma*”, “*saber detectar situaciones*”), baita jarrera aldaketa itxaropen bat ere (“*empezar un cambio*”), aldaketa pertsonalaren bidez arlo sozialean eragiteko aukera (“*más información para combatirlo*”, “*inculcar a las próximas generaciones*”) eta taldearekiko igurikapenak (“*crear un vínculo, red*”) barne. Alderdi horiek guztiek, programaren garapenaren balorazio positiboarekin batera, piztutako interesa eta parte hartze aktiboa azaltzen dituzte.

Ikasle guztiek oso positiboki baloratu dituzte bai saioetako edukiak bai metodologia. Sakontzeko proposamen gisa gehien agertzen diren edukiak dira “*biografía sexual*” eta “*amor romántico*” ataletan landutakoak. Dinamika batzuek arrakasta berezia izan dute. Adibidez, “*biografía sexual*” hainbat aldiz aipatzen da, eta esaten da gustukoa izan zela taldea irekitzeko eta konfiantza sortzeko eman zuen aukeragatik. Izan ere, uste dute emandako informazioa “guztiz ulergarria” dela, eta erabilitako teknika pedagogikoak, “oso egokiak”. Gainera, uste dute unibertsitateak jarritako baliabideak “oso egokiak” izan direla. Nahiz eta balorazio kualitatiboetan aipatu den ikasgelak deserosoak izan direla, gela batetik bestera ibili direlako eta egun argi faltagatik (B taldeetan gertatu da hori).

Programaren iraupenari dagokionez, ikasleek uste dute “egokia” izan dela. Egutegietan, iraupen posibleak zerikusia du klase garaiekin edo azterketa garaiekin, eta uste dute garairik egokiena dela otsailetik apirilera, eta urritik abendurako epea ere aipatzen da, nahiz eta zalantza gehiagorekin. Ordutegiak negatiboki baloratzen badira ere, ez dago proposamen alternatibo argirik.

Bestetik, neskek oso positiboki baloratu dute profesionalen lana. Datu aipagarriena da nesken hiru laurdenentzat baino gehiagorentzat “bikaina” izan dela, eta ia laurdenarentzat, “oso ona”. Uste dute pertsona prestatuak direla, taldea gidatzen badakitela, hizkuntza argia eta ulergarria erabiltzen dutela, diren bezalakoak agertzen direla eta ikasleekin enpatizatzen badakitela. Izan ere, balorazio kualitatiboan, nabarmendu egiten dituzte programaren garapenaren arduradunen jarrera eta motibazioa. Motibazioak sinergiak sortzen ditu, inpaktu bat duelako emozionalki eta ezinbestekoa delako transmisioa egon dadin: “*lo dan con muchas ganas, ponen empeño y se nota*”. Taldearen beharretara egokitzeko ahalegin bat ikusi da: “*resolver nuestras dudas y teniendo en cuenta nuestros intereses en todo momento*”, “*capaces de enseñar y*

*valorar lo que ocurre”, “flexibilidad en el programa”, “parar para resolver dudas”*  
*“saioak oso dinamikoak... gure artean harreman oso ona izatera lagundu duelako”,*  
*“gertutasuna eta konfiantza”, “ikaslagunen artean emondako giroa”* resolver nuestras  
*dudas y teniendo en cuenta nuestros intereses en todo momento”, “capaces de enseñar y*  
*valorar lo que ocurre”, “flexibilidad en el programa”, “parar para resolver dudas”*  
*“saioak oso dinamikoak... gure artean harreman oso ona izaten lagundu duelako”,*  
*“gertutasuna eta konfiantza”, “ikaslagunen arteko giroa”*.

Azkenik, prozesuaren ebaluazioaren emaitzek erakusten dute nesken ikuspegitik aldaketak izan direla informazioan (*“detectar comportamientos machistas”,*  
*“mikromatxismoak zuzendu”, “maitasun erromantikoa”, “conciencia de los estereotipos*  
*de la sociedad”, “conocimiento”*), eta zehazten dute espezifikoki, *“aclaración de*  
*terminología y conceptos”* (ikusgarritasuna emateko, dibertsitatea, binarismoa, nortasuna... aipatuz), ikuspegi analitiko berriak ezagutzera eraman dituztenak, *“beste*  
*perspektibak ezagutzea”,* jarreretan (*“Reflexión”, “analizar mi entorno y los*  
*comportamientos”* “Consciencia”, *“matxismoaren konzientzia gehiago”, “ser más*  
*crítica”, “ayudarnos a nosotras mismas”, “empoderarse”, “valorarnos más”, “abrir los*  
*ojos”, “prevención ante futuras situaciones”, “valorar la amistad por encima del amor”,*  
*“empatía”, “soy más crítica”, “mayor compromiso”*) eta portaeretan (*“Gure arteko*  
*elkarlana eta ulermena (lantzea)”, “aprender a valorar las actitudes o comportamientos*  
*de otras personas”, “nosotras al contárselo a otras expandimos el efecto del*  
*programa”, “empatía”, “sororidad”, “ayudar a nuestras amigas”*). Pertzepzio hori berretsiz, gogora dezagun emaitzen ebaluazioak adierazten duela lortu dela aldatzea sineste eta jarrera sexista batzuk, eta handitu egin dela parte hartzaileen jabekuntza maila.

Beraz, ondorio gisa esan daiteke **oro har Indartun parte hartu duten ikasle guztiek oso positiboki baloratu dutela programa.**

Programa hobetzeko ideiak ere eman dituzte:

- a) Komunikazio planari dagokionez, proposatzen dute *“mejorar la información y comunicación para apuntarse al curso”*.
- b) *“saber cómo seguir con esto”* eta proposamen esplizitu bat: *“2. zati bat programarena”*.

### 3.4.- Jardun lerroak

Emaitzak ikusirik, guztiz positibotzat har daiteke UPV/EHUko hainbat gradutako neskekin eginiko proiektua.

Alde batetik, ikasleek oso ondo hartu dute genero indarkeriak prebenitzeko programa. Programa hori beren prestakuntza pertsonal eta profesionalaren barnean egonkortzeko beharra nabarmentzen dute. Ebaluazioen emaitzek informazioa eman digute esku hartzeek gazteen jarrera eta sineste sexistetan hobekuntzak eragin dituzten alderdiei buruz, baita esku hartzeek eragin positiborik izan ez duten alderdiei buruz ere. Datu horiek funtsezkoak dira profesionalentzat, ondo funtzionatzen duten programen alderdiak indartzeko eta espero zen emaitza eman ez dutenak aldatzeko.

Kontuan izanik aurreko atalean azaldu diren emaitzak, honako hauek dira programa hurrengo edizioetan hobetzeko proposamenak:

- Ikasleek adierazi dute Indartu Programaren bigarren fase batekin jarraitu nahi luketela datorren ikasturtean, uste dutelako lehenengo programa guztiz baliagarria izan dela zalantzan jartzeko barneratuak zituzten uste eta jarrera matxistak. Uste dute beharrezkoa dutela uste eta jarrera horiei lotutako gaietan sakontzea eta beren baliabide pertsonalak eta sozialak indartzea.
- Ezin izan da bete talde antolatuak eta autonomoak sortzeko helburua, ikasle gehienek lehenengo aldiz egin dutelako gogoeta sakona gai hauei buruz. Ebaluazioaren emaitzen bidez, ikus daiteke programak eragina izan duela parte hartzaileen jarreretan, nahiz eta aktibismo feminista mailak beste lan mota bat eskatzen duen. Beraz, programan aritu diren profesionalek uste dute programaren bigarren fase bat behar dela helburu hori betetzeko.
- Programan landu diren edukiei buruz, ebaluazioak informazioa eman du baliabide instituzionalen edukiei buruz, eta harrera txarrena izan duen gaia izan da. Profesionalek proposatzen dute denbora gutxiago erabiltzea baliabide horiek aurkezten eta indarkeria matxistaren edukien barnean kokatzea.
- Parte hartzaileen ekarpenen artean, proposatzen da ere programari buruzko komunikazio eta zabalkunde lan landuago bat egitea hurrengo edizioetan.

*Laburbilduz, prozesuaren ebaluazioaren eta programaren emaitzen bidez lortutako emaitza positiboek adierazten dute beharrezkoa dela, eta garrantzitsua hortaz, era honetako esku hartzeak egiten jarraitzea, gaian sakontzeko eta jarrerak nahiz portaerak aldatzeko. Helburua litzateke uste, jarrera eta portaera ez horren sexistak garatzeko probabilitatea handitzea, baita jabekuntza maila handiago bat ere, harreman errespetutsuagoak eta igualitarioagoak indartzeko, indarkeria mota orotatik libre.*